

## ZORTZI EUSKAL ENPRESA NEGOZIO AUKERA BILA DIJOAZ ERRUSIARA

**Donostia - 2017ko martxoaren 20a** - Errusiara joateko misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganberekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Azpiegitura Sailaren laguntzarekin.

Misioa martxoaren 20a eta 24a bitartean egingo da eta **8 enpresek** parte hartuko dute, 6 gipuzkoarrek, bizkaitar batek eta arabar batek. Sektore anitzeko misioa da non ekipo-ondasuneko, azpiegitura eta industria-ondasuneko eta erakikuntzako sektoreak gailentzen diren. Euskal enpresen ordezkariak osatzen duten zortzi enpresak Errusiara abiatuko dira errusiako merkatuak eskaintzen dituen aukerak aztertzeko eta euren sektoreen egoera lehen eskutik ezagutzeko asmoz.

### Errusia

Errusiako Federazioa munduko herrialde handiena da. Herrialdearen populazio osoa 141,9 miloi biztanlekoa da eta biztanlekoaren %80a herrialdearen Europako aldean biltzen da. Errusiaren bazkide komertzial nagusia Europar Batasuna da %49ko kanpo merkataritzarekin. Herrialdearen ekonomia petroleoan, gasean eta honen deribatuetan eta metaletan eusten da.

2015ean Errusiako ekonomia %3,7 uzkuritu ondoren eta %0,6a 2016an, Nazioarteko Diru Funtsak aurten BPG %1,1 haziko dela aurreikusten du eta %1,2a 2018an. Erakundeak azken txostenean dio errusiako ekonomiak nazioarteko isunen eta petroleoaren hondoratzeen "shocks"ak xurgatu dituela. Erakundeak aurten eta datorren urtean jarraituko duen susperraldi baten hasiera ikusten du. Nazioarteko Diru Funtsak bestalde, petroleoaren prezio baxu iraunkorretara egokitzen den fiskalitate programa bat sustatzeko gobernuak egin duen esfortsua nabarmentzen du. Horrez gain, turismoa ere kontutan hartzekoa da, azken urtean sektore hau lehentasun bat bihurtu da eta (2018an egingo den futbol mundialak ere aukera interesgarriak eskaini ditzake).

Eskaera handiena duten sektoreei dagokionez kontsumo-ondasunetakotakoa eta nekazaritza elikadurakoak izango lirateke, azken hauen barne haltzarien, oinetakoen, arropen, keramiken, aldeztu aurretik egindako jakien, landare-kontserben eta ardoen sektoreak nabarmentzen direlarik. Kontutan hartu beharreko beste sektorea automobilgizaren gailuen sektorea da, sektore hau Mosku eta Leningrado eskualdeetan biltzen da, eta han da atzerriko enpresa gehienak ezarri diren eremua automobilen gailuak fabrikatzen dituztenak bertara erakartzen dituztelarik. Ontzigintza sektorean ere badira aukerak, industria mekanikoa eta farmaziakoak ahaztu gabe.

Euskal Autonomi Erkideak Errusiara egindako esportazioen balioak 2016an 191.563,07 (mila eurotan) hazi ziren, 2015arekin alderatuz %13,4 handituz.



Euskal Autonomi Erkidegoak 2016an Errusiara esportatu zituen produktu garrantzitsuenak ondorengoak dira:

<b>Esportatutako produktuak</b>	<b>Mila €tan</b>	<b>Guztiaren %</b>
AUTOMOBILAK, TRAKTORAK, ETA GAINERAKOAK LURREKO IBILGAILUAK, BERE ZAITAK ETA GAILUAK	74.961,01	39,1%
ERREAKTORE NUKLEARRA, GALDERAK, MAKINAK, APARATU MEKANIKOAK, ETA MAKINA HAUEN GAILUAK ETA ZATIAK	43.355,23	22,6%
KAUTXUA ETA BERE MANUFATURAK	28.541,58	14,9%

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irune Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347